

auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo

herrera

Mendi-Zaleak elkarrekin igande honetarako, hilak 12, ibilaldi berezia prestatu du Pas de Roland aldera. Ibilaldi hau urteko lehena izango da eta beti bezala San Luis enparantzik aterako da goizeko 7.30etan. Parte hartzeko 1.300 pezeta ordaindu behar dira eta ibilaldiaren punturik altuena Artzamendi izango da (927 metro). Malda, Artzamendi, Mehatse Lepoa, Itsusiko Harriak, Zubiaberri eta Bidarra bisitatuko dira.


San Luis Gonzaga

Elizan urtean zehar aritzen den abesbatza azken egun hauetan telebistan ikusteko aukera izan dugu. Eguberri garaian ETBko kamarak gora eta behera ibili dira abesbatzaren lanak erakusteko asmotan eta urduritasuna ere nabaritu da parte hartzaileetan.

Euskal Giroa

elkarrekin antolatzen duen danborrada auzoko kaleak girotzen izango dugu hilaren 20an gaueko 12.00etatik aurrera. Beti bezala, danborradan parte hartu nahi dutenek entsaioak izango dituzte urtarrilaren 13,14,15 eta 16an 20.00etan.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



N-I: aukera berriak

Kezka ugari sorrarazten ditu N-I errepideak herrertar eta Pasai Antxoko biztanleengan. Arriskutsua da oso eta nahiz eta arazoak asko hitz egin den, ez zaio oraindik inongo konponbiderik eman. Auzokideen proposamena Antxotik Larraxora bitarteko zatia arintzeko, trafikoa autopistara desbideratzea da, ordainketa ezabatuz.

intxaurrondo

Pepe Rei kazetaria izango dugu larunbat honetan auzoan. «Intxaurrondo la trama verde» bere azken liburuak aurkeztuko du Zulo-Zahar elkartean egingo den afari-tertulian. Ajoarrieroa, txuleta, entsalada eta postrea dira afariaren osagaiak eta prezioa 1.500 pezetakoa da. Parte hartu nahi baduzu, hurbil zaitez elkartera txartela hartzera. Bestalde, Pepe Reiren liburuak salgai aurkituko dituzu tabernan bertan.

Kazerolada bat antolatuko du Intxaurrondoko Intsumiso Taldeak gaur arratsalderako. Arratsaldeko 19.30etan egin dute zita Zulo-Zahar elkartean pa-

rean. Ekitaldi hau intsumisioen inhabilitazioaren aurka egiten ari den lanaren barnean kokatzen da. Aurrera begira, ekitaldi gehiago egiteko asmoa dute eta hilabete honen amaieran mahainguru bat egingo dute Kultur Etxean gaia aztertzeko. beste gazte talde batzuk ere hartuko dute parte eztabaida honetan.

Intxaurrondoko pilota eskolak ordutegi berria izango du aurten. Hemendik aurrera, klase egunak astearteetan 18.00etatik 20.00etara, ostegunetan 18.00etatik 19.00etara eta ostiraletan 18.00etatik 21.00etara izango dira. Ordutegi berri hau orain

hasten diren haurrentzat eta aurretik bertan dabilzantzetzat izango da. Intxaurrondoko klubak haur guztiak animatu nahi ditu pilotan has daitezen. Lehen harremana Zarategi kaleko lokalera joanaz edo frontoira inguraturaz izan dezakezue. Bestela telefonoz deitu 281738 zenbakira.

Gazte Asanbladaren

afaria ospatu zen urte amaieran eta bertan Arzak jatetxean afari bat zozketatu zen. Zerbaki sariduna 368 da eta sarituak 27 44 88 telefonora dei egin dezake. Afarian gazte ugari izan zen.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)



Ordu erdi 250 pezeta
Ordu bete 500 pezeta

Astelehenetik
ostegunera ordu bete
baino
gehiago egonda...

PELUTXE BAT OPARI!!!